


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Facultad de Economía y Empresa
Ekonomia Eta Enpresa Fakultatea

NAZIOATEKO ZERGA-SISTEMA

ARIKETAK ETA JARDUERAK

Saila
Ekonomia Aplikatua II (Ogasun Publikoa)



II GAIA ARIKETAK

1 ARIKETA

Teoriako dokumentuetan adierazten den bezala, balizko batzuen pean, helmugaren printzipioaren arabera BEZaren harmonizazioa pareto superiorra da, hau da, efizientzia irabazten duen herrialdearentzat (zergak jaisten dituen) ongizate terminuetan irabaziak altuagoak dira zergak igotzen dituen herrialdearen galerak baino. Adibidean, herrialde handia da ongizatea irabazten duena eta herrialde txikia galtzen duena. Froga ezazu ea alderantziz izango balitz eta herrialde txikiak zerga altuagoetatik harmonizatuko balu, emaitzak aldatuko liratekeen irabaziak herrialde txikian eta galerak herrialde handian izan arren.

EBAZTEKO GIDA: Gaian agertzen den grafikoko pausuak jarraitu, herrialde txikiari zergarik altuena ezarriz. Hemendik abiatuz, soberakinen aldakuntza desberdinak kalkulatu behar dira (prozedimendu berdina jarraituz), gaiko adibidean egiten den modu berdinean.

2 ARIKETA

Ariketa berdina egin ezazu jatorriaren printzipioaren arabera BEZaren harmonizazioaren kasurako.

EBAZTEKO GIDA: Gaian agertzen den grafikoko pausuak jarraitu, herrialde txikiari zergarik altuena ezarriz.

III GAIA ARIKETAK

1 ARIKETA

A herrialdean bizi den langile batek (Azul Jn.) 50 000€ko errenta jaso du bere herrialdean, gainera bere lanagatik 120 000€ko errenta jaso du B herrialdean. Badakigu A eta B herrialdeetako zerga-tasa berdina dela:

0	eta	20.000€	artean.....0%
20.001	eta	30.000	artean.....15%
30.001	eta	50.000	artean20%
50.001	eta	90.000	artean25%
90.001	eta	200.000	artean.....30%
		200.000 tik aurrera.....40%	

Zein izango litzateke herrialde bakoitzaren bilketa eta Azul Jn.aren errenta garbia, herrialdeen arteko hitzarmena:

- jatorrian zerga-salbuespenarena balitz?
- helmugan zerga-salbuespenarena balitz?
- helmugan zerga-salbuespena progresibotasunarekin balitz?

ERANTZUNAK:

- bilketa A: 39.500 bilketa B: 0 Errenta Garbia:130.500
- bilketa A: 5.500 bilketa B: 24.500 Errenta Garbia:140.000
- bilketa A: $50.000 \times 23,23\% = 11.617$ bilketa B: 24.500 Errenta Garbia:133.882.

2 ARIKETA

Aurreko kasuan kenkaria kuotan metodoa aplikatuko balitz eta B herrialdean ez-egoiliarren errenta horren %10 zerga bat izango balute, zein izango litzateke herrialde bakoitzaren bilketa eta Azul Jn.aren errenta garbia?

ERANTZUNAK: bilketa A:27.500 bilketa B: 12.000 Errenta Garbia:130.500

3 ARIKETA

Aurreko kasuan tope maximo bateko klausula bat egongo balitz, erantzuna aldatuko litzateke? Eta Bn ez-egoiliarrentzako zerga %30ekoa balitz, erantzuna aldatuko litzateke? Zein da arrazoia?

ERANTZUNAK: Lehenengo kasuan ez litzateke erantzuna aldatuko ez baita tope maximora heltzen. Bigarren kasuan B herrialdeak %23,23ko maximoa gainditzen du eta erantzuna honako hau izango litzateke:

bilketa A: $39.500 - 120.00 \times 23,23\% = 11.624$ bilketa B: 36.000 Errenta Garbia: 122.376

4 ARIKETA

An bizi den Azul Jn.ak, Bn kokatuta dagoen Bermejo S.A. enpresan inbertitzen du, bere inbertziotik 100 000€ko dibidendu gordinak jasotzen ditu. Zein izango da herrialde bakoitzaren bilketa eta Azul Jn.aren errenta garbia, A herrialdean 200 000€ko errenta jasotzen duela jakinik? Bi herrialdeen arteko hitzarmena inputazioarena da. Pertsona fisikoentzat A herrialdean dagoen zergapenaren taula 1 ariketakoa da eta B herrialdean ez-egoiliarrek jasotako dibidenduen gaineko %10eko zerga bat ezarri da.

ERANTZUNAK: bilketa A: $(88.500 - 10.000) = 78.500$ bilketa B: 10.000 Errenta Garbia: 211.500

5 ARIKETA

Aurreko kauan, zein izango litzateke erantzuna hitzarmena inputazioaren metodoa azpian dagoen zergaren kenkariarekin aplikatzea baldin bada? Badakigu Bn dagoen SZren tasa %40 dela. Erantzunak aldatuko lirateke hitzarmena tope maximodun inputazioaren metodoa azpian dagoen zergaren kenkariarekin aplikatzea baldin bada?

ERANTZUNAK: Azul Jn.ak teorikoki jasandado SZ 66666€

bilketa Bn: 10000

Azul Jan.ak An aitortu beharreko errenta teorikoa: $300000 + 66666$

bilketa A: $(88.500 + 66.666 \times 40\%) - (10.000 + 66.666) = 38.400$

6 ARIKETA

Berriz ere 4. ariketako kasura bueltatuz, demagun B herrialdeak ez-egoiliarren dibidenduen gaineko zergan %50eko pizgarri bat jartzen duela eta hitzarmenak “ordaindu gabeko zergen” edo “Tax sparing” klausula bat zehazten duela. Nola aldatuko lirateke erantzunak?

ERANTZUNAK: bilketa A: $88.500 - 10.000 = 78.500$ bilketa B: 0 Errenta Garbia: 221.500

IV GAIA ARIKETAK

1 ARIKETA

Tames jaunak, zeinek alemaniar nazionalitatea duen, bere bizilekua Murtzian dauka, non Noveraikina S.A. enpresak kontratatutako arkitekto lez lan egiten duen.

2015an, lan arrazoiak direla eta, Chicago, Mexiko eta Kanadara joan behar izan zuen, Chicagon hilabete 1, Mexikon hilabete 1 eta Kanadan 3 hilabete egon zelarrik.

Honako hau egin ezazu: Argudiatu ezazu ea 2015 jardunaldian Tames jaunak bere ohiko egoitza Espainian duela kontsideratzen den.

EBAZTEKO GIDA: Pertsona fisikoen egoitza fiskala zehazteko, 3/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, martxoaren 5koa, onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak 9. artikuluan dionari eta 4/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, martxoaren 5koa, onartutako Sozietateen gaineko Zergak 8.1. artikuluan dionari kasu egin behar zaio.

2 ARIKETA

Basarbe jauna, arrantzako makinarien ekoizpen eta komertzializaziora dedikatzen den Mecanizados Aragón, S.L.U. enpresako bazkide bakarra da.

Enpresak bere egoitza fiskala Hueskan dauka, non Basarbe jaunak ere bere egoitza partikularra duen.

Bere enpresako produktuen promozioaren garapenean, Basabe jaunak sarritan bidaiatu behar izaten du Japoniara. Ondorioz, 2015 urtean 105 egun baino gutxiagotan gaua igoro du Hueskan.

Honako hau egin ezazu: Argudiatu ezazu ea 2015 jardunaldian Basarbe jaunak bere ohiko egoitza Espainian edo Japonian duen.

EBAZTEKO GIDA: Pertsona fisikoen egoitza fiskala zehazteko, 3/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, martxoaren 5koa, onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak 9. artikuluan dionari eta 4/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, martxoaren 5koa, onartutako Sozietateen gaineko Zergak 8.1. artikuluan dionari kasu egin behar zaio.

3 ARIKETA

Espainiar nazionalitatea duen Gomez andrea Parisen egoitza duen Laundry enpresako zuzendari nagusia da.

Bere familia Bilbon bizi denez (gizona eta adinez txikiak diren 3 seme-alaba), Gomez andreak ostiralero Bilbora bidaiatzen du asteburua beraien pasatzeko eta astelehenetan Parisera bueltatzen da.

Honako hau egin ezazu: Argudiatu ezazu ea Gomez andreak bere ohiko egoitza Espainian edo Frantzian duen.

EBAZTEKO GIDA: Pertsona fisikoen egoitza fiskala zehazteko, 3/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, martxoaren 5koa, onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak 9. artikuluan dioenari eta 4/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, martxoaren 5koa, onartutako Sozietateen gaineko Zergak 8.1. artikuluan dioenari kasu egin behar zaio.

4 ARIKETA

Establezimendu iraunkorrik Espainian ez daukan Combustibles Latinoamericanos, S.L. Venezuelako enpresak lortutako honako errenta hauei aplikatu beharreko zergapena zehaz ezazu.

- a) Combustibles Latinoamericanos, S.L. enpresak 18 000€ko balioagatik salgaiak saltzen dizkio bere espainiar filiala den Gas España, S.A.ri (filialaren partaidetzaren %100a berea da).
- b) Combustibles Latinoamericanos, S.L. enpresak 6500€ko zenbatekodun aholkularitza zerbitzuak burutu ditu. Aholkularitza hau Gas España, S.A. enpresak espainiar lurraldean burutu dituen jardurekin erlazionatuta dago.
- c) Gas España, S.A. enpresak "GranGas" marka erabiltzeagatik 8000 €ko zenbatekoko kanonak ordaintzen dizkio Combustibles Latinoamericanos, S.L. enpresari.
- d) Combustibles Latinoamericanos, S.L.k (alokatzaile) Espainian kokatuta dagoen higiezin bat alokatzen dio Gas España, S.A.ri (maizterra). Alokairu kontratu honekin erlazionatuta dauden zenbateko hauek identifikatzen dira:
 - Alokairuagतिक sarrerak: 5.700
 - Mantenimendu gastuak: 800
- e) Combustibles Latinoamericanos, S.L.k 650€ kobratzen ditu Estatuaren Obligazioen interesengatik.

- f) Combustibles Latinoamericanos, S.L.k espainiar elkarte bati akzio batzuk saltzen dizkio 18000€ko prezioan. Akzio hauek aurretiaz elkarte frantsez bati erosi zizkion 8000€ko erosketa-kostuak zituztelarik. Saldutako parte-hartze portzentaia %100 da.
- g) Combustibles Latinoamericanos, S.L.k Petróleo España, S.A.ren akzioak saldu ditu 16000€gatik. Petróleo España, S.A. ere espainiar filial bat da eta bere akzio guztien %100a bereganatu zuen Combustibles Latinoamericanos, S.L. enpresak 9.000€ko erosketa-kostuak zituelarik.
- h) Combustibles Latinoamericanos, S.L. enpresak kotizatzen duen espainiar enpresa baten akzioak saltzen ditu espainiako akzioen Burtsan. Saldutako akzioek 17.000€ko erosketa-kostuak zituzten eta Combustibles Latinoamericanos, S.L. enpresak 21.000€gatik saldu ditu.
- i) Combustibles Latinoamericanos, S.L.k bere espainiar filiala den Gas España, S.A. enpresari emandako mailegu bati dagozkion 350€ko interesak kobratu ditu.
- j) Combustibles Latinoamericanos, S.L.k bere espainiar filiala den Gas España, S.A.tik datozkion 9000€ko dibidenduak kobratzen ditu.

EBAZTEKO GIDA: Lehenengo eta behin, lortutako errenta mota identifikatu beharko da, Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zergari atxikitako eta salbuespen-gabeko errenta den jakin ahal izateko. (41/1998 Legea, Abenduaren 9koa, Ez-Egoiliarren Errentaren gaineko Zerga eta zerga-Arauk. II eta III Kapituluak).

Errenta motak identifikatu ondoren, Lege horren IV Kapitulura jo behar da errenta hauei aplikatu beharreko zergapena identifikatzeko.

JARDUERAK

1.- Lehenengoa, irakasgaiaren zehar, astean behin gaiarekin erlazionaturako bi artikulua (prensa espezializatuan) irakurtzean datza. Ondoren, ikasleak irakurritakoa gaiko edukiarekin erlazionatu beharko du, bere ondorioak atera ahal izateko. Jarduera interesgarri bat artikulua eta ikaslearen hausnarketak biltzea izango litzateke, irakasgaiaren bukaeran guztia berbegiratu eta aztertutako fenomeno ekonomikoen ulerpenean aurrera pausorik egin duen ikus dezan. Artikuluen irakurketa eta hausnarketaren garapena, jarduerari esleitutako denboraren 1/3 izan beharko litzateke.

2.- Bigarren jarduera, 1 jardueran aurkitutako gaiaren inguruko bibliografia bilatzea izango litzateke. Ondoren, bildutako bibliografia kontuan hartuz, gaiaren inguruko saiakera labur bat idatzi beharko litzateke, 5 orrialde ingurukoa, Jarduera hau egiteko, jardueretara esleitutako denboraren 1/3 beharko litzateke.

3.- Jardueren denboraren gainontzeko 1/3a, ariketak ebazteko erabiliko litzateke.

Jarduera hauek tutoretzatu ezin daitezkeenez, jardueren garapenean “erraztasun subjektibo” bat lortzea izango litzateke helburua.